

IKASLEEN

9. zenbakia

2004ko abenduaren 2a

ELIZATXO IKASTOLA

Garbiñe Merino - Sexologiako klaseak eman ditu Hernaniko ikastetxeetan

Liburu kritika

“Hirietatik zenbat eta gertuago egon, irekiagoak dira gazteak sexuari buruz hitz egiterakoan”

Maialen Izagirre - Maialen Alberro - Janire Garin eta Amaia Urdangarin
ELIZATXO IKASTOLA

Noiz hasi zinen sexologia irakasten? Zenbat denbora daramazu hontan? Zein dira behar diren ikasketak?

Irakasten 1990ean hasi nintzen, beraz, duela 14 urte.

Sexologia egiteko lehenengo atera behar da titulo unibertsitario bat. Normalean jendea iristen da sexologiara, pedagogia edo psikologia eginez, eta badira medikuntza egin dutenak ere. Hori egin ondoren, Madrilen sexologia master bat egiten duzu bi urtez.

Zergatik sexologia eta ez beste gairen bat?

Pedagogia ikasi nuenean, eduki nuen pila bat gustatu zitzaidan irakasle bat, Felix López, sexologia ematen zidan eta momentu horretan aukeratu behar nuen sexologia edo geriatría. Nire inguruan beste pertsona pare bat oso interesatuta zeuden, etorkizuna zeukala ikusi genuen eta asko gustatu zitzaidan gaia, horregatik, erabaki nuen.

Zenbat urte daramazu ikastetxeetan irakasteko ematen?

14, lehenbizi lana ikastetxe batean izan zen. Logroñon hasi nintzen lanean, hango lagun batek lagundu zigulako ikastaro mundu guzti hau ezagutzen.

Nondik ibiltzen zara ikastarok ematen? Diferentziak ba al daude tuki ezberdinetako ikaslearen artean?

Batez ere Gipuzkoan. Donostian eta inguruan: Usurbil, Lasarte, Hernani...

Bai, diferentzia handiak egoten dira. Baina baita ikastetxe baten barruan ere taldearen dinamikaren arabera, taldea berritsua den ala ez, langilea den, dinamika ezberdina izaten da. Guk egiten dugun lana ez da nik bakarrik hitzegitea, baizik eta taldean lan egitea. Klaseko giroa hitzegiteko giroa bada, lasaia bada, ikastarok beti hobeto ateratzen dira. Isilak badira, oso lotasatiak, kostatzen da lan egitea.

Zer adinekoekin egiten dituzu ikastarok?

Ba, DBHtik aurrera, bestela gazteegiak iruditzen zaizkigulako klaseak emateko eta DBHtik aurrera adin egokia iruditzen zaizkigulako. Beste batzuetan egin izan ditut ikastaro solteak jende helduarentzat, baina horiek asteburuetako ikastaro intentsiboak izaten dira.

Laburbildu zer egiten den ikastaroean.


Ni saiatzen naiz ikastaroan lantzen informazioa, zer informazio maila duten nire ikasleek, informazio hori nolakoa den... Daukaten jarrera orokorra sexualitatearekiko, ikusi, landu, dinamika ezberdinen bitartez. Batez ere jende gaztearekin saiatzen naiz asko. Adin honetan neskak eta mutilak asko erakartzen dira, baina askotan ez dakite nola bideratu hori, edo lotsatu egiten dira, zailtasunak dauzkate... hori lantzea inportantea iruditzen zait. Uste dut etxeetan hitzegiten dutela presentzioari buruz, preserbatiboak edo hilerokoari buruz... baina, uste dut, gazteek ez daukatela tokirik hitzegiteko bere desoez, plazerraz, sentitzen dutenaz eta bere sentimenduez... Orduan ni saiatzen naiz hortan pixka bat murgiltzen.

Egitura berdina al du ikastarok ikastetxe guztietan?

Ez, adinaren arabera aldatzen dira. Gauza bat da helburu orokorrak berdinak izatea, baina lan egiteko modua desberdina da. Elkarrekin erlazionatzeko dinamikak ezin ditugu berdin planteatu.

Zein izan dira egin dizkizuten galdera kurioso edo bitxiak?

Jendeak asko galdetzen dit: *ondo iruditzen zaizu 16 urterekin*



Garbiñe Merino.

erlazio koitalak mantentzea? Nik hori ezin dut erantzun, norberaren arabera delako, bere heldutasunaren arabera. Jende helduak ere galdetzen dit, zer egin behar duten bizipen sexual osasuntsu bat edukitzeko, eta hori norberarengan dago.

Ikasleak "ausartak" al dira sexuari buruz hitz egiterakoan? Eta hernaniarrak?

Denetik dago; herri bat itxia denean, txikia denean, zailtasun haundiagoak daude; herri handi batean, zenbat eta hiriburutik gertuago egon, irekiagoak dira ikasleak. Orokorrean, hitzegitea zaila da.

Hernaniarrak, depende. Nik ezagutu ditut Langile ikastolakoak eta baita Elizatxokoak ere. Ba urtetik urtera aldatu egiten dira, batzuetan irekiagoak dira, beste batzuetan ez.


Zer iritzi eta zer ondorio atera dituzu GUREKIN (4.mailako Elizatxoko ikasleekin) egindako ikastaroz? Zerk kezkatzen

ditu Hernaniko gazteak?

Neretzat talde ona izan da, erlazio onak dituzue... Iruditzen zait dinamika ona daukazuela, ez zarete gaizki eramaten, eta oso inportantea da, zuen artean hitz egiterakoan agresiorik ez egotea. Hori ematen denean, jendea isildu egiten da eta ez da ausartzen ezer esaten. Gela honetan espontaneidade handia egon denez, nik suposatzen dut zuek dexente gustora sentitu zaretela talde honen barruan. Oso talde jatorra eta neretzat ona izan da.

Egia da talde honetako neskek oso leihal erantzun zutela, oso irekiak, normalean azaltzen ez diren bezala. Eta ez da lotsatzeko, hau da, zuek gustura sentitzeko, horrek oso gustura sentiarazi ninduelako. Beraz, oso ondo. Hori bai dela desberdintasun bat beste gehiengoarekin konparatuta.

Hernanikoak, beste herrikoak bezala, kezkatzen zaituztena izaten da lehenengo erlazio koitalari buruzko galderak. Alde batetik ilusioak, bestetik, beldurak, zailtasunak... □



Gotzon Garate, liburuaren idazlea.

Goizuetako Ezkongaiak

Amaia Pejenaute - Gorane Iturralde
ELIZATXO IKASTOLA

Pasa den kurtsoan, martxoaren 10ean, Gotzon Garate (Elgoibar 1934) etorri zitzaigun Elizatxo BHLra hitzaldi bat emateko asmoz. Egun horretan bere lan zabalaz eta, zehatz mehatz, bere lanik ezagunenari buruz, *Goizuetako ezkongaiak*-eri buruz, hitz egitera hurbildu zitzaigun.

Gotzon Garate, gure ustez, oso idazle ona da, jakinduria handikoa eta euskaraz oso ondo mintzatzen dena. Guzti hori dela eta, oso gustora entzun genuen bere hitzaldia, beraz, ezagutzeko aukera baduzue ez galdu kultura zabaleko idazle honekin egoteko parada. Bestalde, hitzaldian gurekin oso atsegina izan zen eta gu bultzatzen gintuen parte hartzera, guk galderak egin genizkion eta berak oso luze erantzuten zizkigun, gure zalantza guztiak argituz.

Nobelari dagokionez, Donostiako Jon Bidart detektibeari On Lorentzo jaunaren gutun bat iristen zaio. Bertan berarekin elkartzeko eskatzen dio, gauza garrantzitsu bat kontatu behar diolako. Detektibea Goizuetara joaten da, baina gizon hura ez da azaltzen. Hurrengo egunean gizon bat hilda agertzen da eta Bidartek gizon hura On Lorentzo dela jakiten du. Egun batzuk beranduago, Karmen Berroeta, On Lorentzoren neskamea ere hil egin dutela jakiten du. Askok ikertu ondoren pertsonaje guztiak ostatuan elkartzen ditu, kasua argitu duela esanez.

Gure ustez, eleberririk interesgarria da, misterioz betea, gainera, irakurlea bera saiatu daiteke hiltzailea nor den topatzen liburu irakurtzen duen heinean. Eleberririk poliziakoak atsegin dituen jendeari biziki gomendatzen diogu liburu hau. Anima zaitzete! □

Gorantz dijoan kirola: ehiza

■ 2003 eta 2004an Gipuzkoan 4,6 miloi inguru uso pasa ziren.

Gaizka Aduriz, Axel Tranche, Aitor Apezetxea, Ibai Beraza, Ion Apezetxea, Imanol Garcia
ELIZATXO IKASTOLA

Ehiza duela urte asko gizakiak bere beharrak asetzeko modua zen. Gaur egun ehiza kirola da eta ehizatzen den haragia estimatua izaten da.

Euskal Herrian egiten den ehiza mota bi taldetan banatu daiteke: ehiza xehea eta ehiza larria.

Ehiza mota bakoitzak bere arauak ditu eta baita harrapatzeke epea ere. Horrela izango ez balitz, harrapakinek ugaltzeko aukerarik ez lukete izango eta desagertu egingo liriteke. Arau hauek bete ahal izateko basozainak egoten dira kontrolatzeko eta ehiztariak legea hautsiko balute isuna ordaindu beharko lukete edo, agian, ehizatzeke baimena kenduko litzaieke.

Ehiza xehea: animaliak tamaina txikikoak izan behar dute. Talde honetakoak dira: usoa, oilagorra, eperra, usapala, faisaia...

Ehizatzeke beharrezkoa da eskopeta eta tiratzeko behar diren berunezko perdigoiez osatutako kartutxoak ere. Zakurrak ere lagungarri dira: hauek beraien usaimenarekin animalia usaindu eta "muestran" jartzen dira animalia non dagoen seinalatuz. Normalean, setterra eta pointerra erabiltzen dira, baina, badira beste hainbat zakur arraza ere: espaniela, kokerra, setter irlandarra, brakoa.

Ehiza larria: animaliak tamaina



Pago-usoa. Hau da paseko usoa.

handikoak dira eta talde honetan ezagunenak: basurdea, kortzoa, basauntza, mufloia...

Euskal Herrian ezagunena basurdea da. Basurdeetan normalean erriflea erabiltzen da baina eskopeta ere erabili daiteke. Hemen ere zakurren laguntza mesedegarria da. Zakurrak basurdeen atzetik joaten dira eta ehiztariengana hurbiltzen dituzte hauek harrapatzeko.

Garai honetan ehiza pil-pilean dago, udazkenean uso-pasea izaten baita. Hernanin Txantxangorri elkarteak bereziki ehiza eta arrantzaz arduratzen da. Urria-azaroa bitartean, ehiztariak Txantxangorri-joaten dira ehizarako postuen zozketan parte hartzeko. Hiru mendietako postuak dira zozketatzen direnak, eta honako hau da mendi bakoitzean dagoen postu

kopurua (gutxi gora behera):

-Asketan: 50-52 bat postu.

-Larregainen: 36 bat postu.

-Oriamendin: 16 bat postu.

Ehiztariak eguraldiaren menpe egoten dira askotan. Gehienek hegoaizea dute gogoko, usoak behetik eta tiro egiteko egoki sartzen direlako postuetara. Haizea nahasia dagoenean askori ez zaie gustatzen. 2003 eta 2004an 4,6 miloi inguru uso pasa ziren Gipuzkoan.

Urtetik urtera usoa asko ugaltzen ari da eta aurten, batez ere, asko pasatu da.

Usoan ez da beharrezkoa zakurra, baina batzuk eramaten dute usoa botatakoan zakurrak usoa posturaino ekar dezan.

Kirol honetan gero eta ehiztari gazteagoak ari dira parte hartzen. □



Gizakia Helburu etxea Hernanin.

Gizakia Helburu: 20 urte Hernanin

Maialen Diaz de Cerio - Jone Iruretagoiena

ELIZATXO IKASTOLA

PROYECTO Hombre 40 pertsonetako talde bat da, 20 urte daramana drogekin arazoak dituzten pertsonen laguntza. Drogen dependentzia duten pertsonen zuzenduta egoteaz gain, edozein adikzio duen pertsonak ere atek irekita dituzte laguntza jasotzeko.

Proyecto Hombre hiru fase bereiz ditzakegu jendea mundu horretatik ateratzeko: harrera, komunitate terapeutikoa eta gizarteratze fasea.

-Harrera, jendea iritsi eta bere arazoa onartzen duen pausoa da. Hau oso gogorra izaten da, mobila kendu eta drogen inguruan duten edozein kontaktu ezabatzen dute, eta bizitza berri baterako lehen pausoa izaten da.

-Komunitate terapeutikoan drogen arazoaren atzetik beste arazo bat dagoela azaltzen zaie alegia, "zu zeu".

-Gizarteratze fasea azkena izaten da, eta bertan jendea berriro ere gizarteratzen laguntzen zaio.

Hernanin jende asko dago murgilduta drogen munduan, baina gehienek ez dute arazoa konpontzeko pausoa ematen. Adinari dagokionez, jendea nerabezaroan hasten da drogak probatzen, etxeko arazoengatik, lagunek bultzatuta, lotsatia izan eta beste lagunen aurrean lotsa hori galdu eta besteak bezalakoa izateagatik, kuriositateagatik... batzuk nerabezaroren ondoren beste interes batzuegatik utzi egingo dute, baina beste batzuk ezin izango dute espiral horretatik atera, eta ondo sentitzeagatik hasi eta ez gaizki sentitzeko kontsumitzen bukatuko dute.

Jendeak arazoari aurre egin nahi badio bertara joan eta atek irekita izango ditu, eta bertan jende jatorra zain izango du besoak irekita dituela. Normalean, oso egoera txarrean dauden pertsonak joaten dira, baina, hala ere, ez da lurra jotzera iritsi behar bertara joan eta arazoa konpontzeko.

Droga asko kontsumitzen dira, baina aipagarrienak hauek dira: hachisa, speeda, heroina eta kokaina. Oso erraza da gazteen giroan edozein droga mota aurkitzea eta gero eta merkeago gainera, esan daiteke ia oparitu egiten dutela.

Azken finean guzti honetatik atera duguna droga gezur bat dela eta berarekin lotutako gauza eta lagun guztiak ere gezurrezkoak direla da.

Nahiz eta kanpotik *Gizakia Helburu*-ri buruzko ikuspegia txarra izan, sartu eta errealitatea ikusita, oso desberdina izango da. Bertan pertsona on eta jatorrak aurkituko ditugu bere amets eta bizitzeko gogoekin.

Bertan denetarik aurkituko dugu, margolariak, poeta frustratuak... baino denak asmo berdinarekin: bizitza berri bat hastea. □

Hurrengo Ikasleen Txokoa:

2005eko otsailaren 3an, osteguna
Inmaculada ikastetxearen eskutik



Orriaren egileak